

- ❑ Amaitarmin eta Urkiolako mendatearen arteko **BI-623** errepideko bide-zatia. Bide horrek jendeak asko estimatzen duen balio objektibo handiko eremua zeharkatzen du: Urkiolako Natura Interes Handiko Eremuan. Azterketan hiru lan hauek egingo dira: bideak paisaian duen presentzia eta integrazioa ebaluatzea, bidearen funtzionaltasuna ebaluatzea (paisaiaz gozatzeko, paisaia ezagutzeko eta estimatzeko elementu moduan), eta paisaian integrazio- edo lehengoratzeko-jarduerak egiteko premiak zehaztea. Azterketa proposatutako beste azterketa batzuekin loturik dago, horiek paisaia-azterketak eta azterketa ekologikoak dira.
- ❑ Urola Garaitik Zumarragaraino doan **GI-631** errepideko bide-zatia, Urolako haran hondotik doana. Bideak paisaian duen eragina eta bidearen paisaia-potentziala ebaluatzea bideratuko da azterketa, eta aintzat hartuko da integrazio-jarduerak egiteko nahiz paisaia-erabilerak garatzeko premia.
- ❑ Deba eta Mutriku arteko **GI-638** errepideko bide-zatia. Paisaia-balio handiko itsasertzeko bidea da. Bideak paisaian duen eragina eta bidearen paisaia-potentziala ebaluatzea bideratuko da azterketa, eta aintzat hartuko da integrazio-jarduerak egiteko nahiz paisaia-erabilerak garatzeko premia. Analisia banakakoa izan beharko da, eta trazaduran elementu bakoitzak duen paisaia-papera kontuan hartuko da, esaterako, blokeka jaustearen kontrako defentsak eta oinezkoentzako pasealekuak.

Zarata arintzea

- ❑ **A-132** errepidea, Azazetako mendatea pasata Santikurutze Kanpezuraino, ingurumen eta paisaia kalitate handiko inguru naturalean txertatua baitago. Zarataren aldetik dituen eraginak ebaluatu beharko dira, eta zarata hori arintzeko jarduerarik behar den ikusi.
- ❑ **A-625** errepidea, Laudion eta Amurrión. Zirkulazio-karga handiko bidea da, eta udalerrien ondotik igarotzen da.
- ❑ **BI-604** eta **BI-637** errepideak, ia ibilbide osoan. Hiri-izaerako bide handiak dira, zirkulazio handia dutenak, eta hiri-alorretako bizitegi-eremuetan kokaturikoak.
- ❑ **BI-625** eta **BI-631** errepideak, bizitegi-eremuetatik igarotzean. Bide-zati horiek zenbait bizitegi-eremutan eragiten dute.
- ❑ **GI-131** errepideko bide-zatiak, Andoaindik Donostia eta Hernaniraino. Errepide horren ertzetan bizitegi-eremuak egotearen eraginez, eta izaten den zirkulazio handia dela-eta, bertakoen bizi-kalitatea kaltetzen duten egoerak sortzen dira.

Bidearen bizigarritasuna hobetzea eta intermodalitatea sustatzea

- ❑ **A-132** errepidea, Azazetako mendatea pasata Santikurutze Kanpezuraino, Nafarroa eta EAEko trenbide zaharraren ibilbidea barne. Ibilbide horren paisaia- eta ekologia-balioko baldintzak direla-eta,

beste garraio-mota batzuk sustatzea beharrezko da, ibilgailuen zirkulazioa arintzeko, eta bidearen osoko baldintzak hobeto gara eta integra daitezen bultzatzeko (taldeko ibilgailuak, bidegorriak, oinezkoentzako ibilbideak). Beste garraio-modu batzuen balizko eraginkortasuna ebaluatzea bideratuko da azterketa, bai eta sustapen- eta ezarpen-jarduerak egiteko premia ebaluatzea ere (azterketa proposatutako beste azterketa batzuekin loturik dago; azterketa horiek paisaia-azterketak eta azterketa hidrikoak, intermodalak eta ekologikokoak dira).

- ❑ **A-625**aren zati batean, eremu funtzional osoan **A-625**ari buruzko proposamenak Nerbioiko parke linealarekin bateragarri izango direla bermatu behar den zatian.
- ❑ **A-623** errepidea, Urrunagako urtegiaren ekialdeko ur-bazterrean zehar. Urtegiaren ondoan, pasealeku bat jartzeko aukera kontuan hartu dugu. Jendearentzako oso erakargarria den ibilbide horrek onura nabarmenak jasoko ditu, beste garraio-mota batzuk sustatu eta eremu horiek aisiarako eta olgetarako moldatzearen badira. Beste garraio-modu batzuen balizko eremua ebaluatzea bideratuko da azterketa, eta aintzat hartuko da sustapen- eta instalazio-jarduerak egiteko premia. (azterketa proposatutako beste azterketa batzuekin loturik dago; azterketa horiek hidriko, ekologikoko eta intermodalak dira).
- ❑ Bizitegi-eremuetatik igarotzen diren **BI-604** eta **BI-637** errepideetako eta **BI-625** eta **BI-631** errepideetako bide-zatiak.

Bide-sare horiek metropoliko sare konplexu batean integratzen dira. Sare horretan, hainbat motatako joan-etorriak izaten dira, eta esku hartuz gero, bide horietako zirkulazio-karga murriztu eta ingurumen-baldintzak hobetu egingo lirateke (azterketa proposatutako beste azterketa batzuekin loturik dago; azterketa horiek soinu- eta paisaia-azterketak eta azterketa intermodalak dira).

- ❑ **BI-623** Izurtzako zeharbidea. Azterlanaren helburua izango da pertsonentzako iragazkortasuna bidearen bizigarritasunaren zati gisa hartzea.
- ❑ Andoainetik Hernaniraino doazen **GI-131** errepideko bide-zatiak. Bide horiek integratzen diren hiri-alorreko bizitegi-eremuetan, hiri arteko joan-etorriak eskualde barnekoak eta eskualde artekoak izaten dira. Eremu horietan esku hartuz gero, bizigarritasuna hobetzeko tratamenduen onura jaso ahalko lukete bertakoek, bai eta garraio-mota bigunagoak eta iraunkortasuna bermatzen dutenak sustatzearen onurak ere.

7. JARDUTE-PROGRAMEN DEFINIZIOA

7.1. PROGRAMA MOTA

1999-2010 EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorrean definituriko jardute-programei eta -azpiprogramei eutsi egin zaie planaren berrikuspenean, 2005-2016 aldirako. Hauek dira:

- ❑ **Lan nagusia**

Lan nagusia kontzeptuaren barnean hauek sartzen dira: azpiegitura berriak egitea eta egungo azpiegituren (galtzada bikoitzeko errepideak, autobiak eta autobideak) edukiera handitzea, bai egungo azpiegiturak bikoiztuz, bai hirugarren erreia gehituz, bai trazaduren saihesbideak eginez. Era berean, autopistetako, autobietako eta galtzada bikoitzeko bideetako sarbide eta loturen eraikuntzarekin eta berrantolaketaekin loturiko esku-hartzeak lan nagusitzat hartzen dira.

Goian azaldutakoaren arabera, Lan Nagusiko programa barruan azpiprograma hauek proposatzen ditugu:

- **Azpiegitura berriak**

Orain arte existitu ez den komunikazio-bide bat definitzeko helburua dutenak dira; edo lehendik dagoen bide baten funtzio-aldaketa definitzeko helburua dutenak, horrek trazadura independente bat dakarrenean.
- **Galtzada bikoiztea**

Galtzada berri bat eraikiz, galtzada bakarreko errepide bat galtzada bananduko errepide bihurtzeko helburu dutenak dira. Oro har, galtzada berri hori existitzen denaren oso ondoan eta gutxi gora-behera paraleloan eraikitzen da. Jarduera horrek moldaketak dakartza: aldaketak trazaduran, sarbide-berrantolaketak, eta, oro har, autobia eta autobide bihurtzeko egin beharreko beharrezko aldaketak.
- **Edukiera handitzea**

Trafiko-eskaera gehiegi duten edukiera handiko bideetan soilik erabiltzen da. Kasu horietan, bidearen edukiera handitzen da, noranzko bakoitzeko errei bat edo bi gehituz, eta horretarako, galtzadak handitu, edo zerbitzu-bideak nahiz galtzada gehigarriak eraikitzen dira.
- **Sarbideen berrantolaketa eta kontrola**

Galtzada bikoitzeko bide-zatiak autobia bihurtzeko jarduera da. Hori egiteko, ezkerreranzko biraketak kendu, elkarguneak hobetu, eta loturetan sarrerak nahiz irteerak kontrolatuko dituzten zerbitzu-bideak eraikitzen dira.
- **Loturak egitea eta/edo berrantolatzea**

Galtzada bikoitzeko autopistetan eta errepideetan loturak egin eta/edo berrantolatzea helburu dutenak dira.

❑ **Egokitzapenak**

Existitzen den errepidearen ezaugarri geometrikoak aldatzeko helburua dute, ibilbidea egiteko behar den denbora, zerbitzuaren maila eta zirkulazioko segurtasuna hobetuko duten jardueren bidez. Esku-hartzearen mailaren arabera, azpiprograma hauek banatu daitezke:

- **Egokitzapenak:**

Jarduera hauek sartzen dira barnean: proposatutako estandarretara arte plataformak handitzea, goitiko nahiz aurretiko bistako trazadurak modernizatu eta hobetzea, eta dauden trazaduren goitiko bistaren okupazioa aldatzea.
- **Trazadura hobetzea eta plataforma handitzea:**

Jarduera honen bidez, existitzen den trazaduraren gainean plataforma handitzen da. Modu horretan, ezarritako funtzio- eta segurtasun-premiei erantzuteko beharrezkoak diren ezaugarri geometrikoak betetzen ez direnean, trazaduraren zenbait elementu aldatzen dira, esaterako, bihurguneak, sestra-aldaketak, bidegurutzeak edo elkarguneak.
- **Elkarguneak berrantolatzea eta sarbideak kontrolatzea:**

Jarduera honen bidez, bide arruntetako sarbide eta elkarguneen kontrola hobetzen da.
- **Zeharbideak hobetzea:**

Jarduera honen bidez, hiriko zeharbideetako oinezkoen elkargune, sarbide eta igarobideen kontrola hobetzen da.
- **Ibilgailu motelentzako erreiak eraikitzea:**

Jarduera honen bidez, gutxitu egiten da ibilgailu astunen zirkulazioaren eragina errepide arruntetako aldapetan; eta horrela, bidearen edukiera eta zerbitzu-maila hobetzen da.

❑ **Hiriko saihesbideak**

Jarduera honen bidez, kanpoko bide edo ingurabide bat eraikitzen da, hiriko zeharbide bat egiteko. Dena den, bide hori ezin da izan trazadura-saihesbide baten zati, ez eta lan nagusitzat hartzen den errepide berri baten zati ere.

❑ **Ingurumen-integrazioa eta -hobekuntza**

Jarduera hauen bidez, arindu egiten dira xede den sareko errepideek eta aurreikusitako jarduerak sortzen dituzten ondorioak, ingurune ingurumen-prozesuetan.

- Ingurune hidrikoan integratzea.
- Iragazkortasuna eta lotura ekologikoa.
- Paisaian integratzea eta aprobetxatzea.
- Zarataren diagnostikoa eta zuzenketa.

- Bidearen bizigarritasuna diagnostikatu eta hobetzea, eta intermodalitatea.